Berbaldi-periodoa: debate-jardunaren deskripziorako eta bere didaktikarako tresna

Itziar Idiazabal, Luis M. Larringan

UPV / EHU

Laburpena

Lan honen helburu nagusia debate-jardunaren deskripzioa egitea da, batetik, eta bestetik, deskripzio hori didaktikarekin lotzea. Eginkizun horretarako Luzzatiren (1985) planteamendua aukeratu da, eta lehenik, proposamen hori bera aurkeztuko dugu artikuluan. Ondoren, periodoa kontzeptua bera eta bere egitura osatzen duten hiru atalak (tentsioa, baldintza eta irtenbidea), eta loturarako definitzen diren berbaldi-euskarriak, non elementu artikulatzaileak eta fatikoak bereizten diren. Bukatzeko, aipatu proposamena lagun hartuta, Luzzatiren datuak, deskripzioak eta azalbideak erkatuko ditugu guk geuk ditugun datuekin. Luzzatiren eredua ekartzen dugu, haren balio deskriptiboa eta didaktikarako eskaintzen dituen aukerak oso baliagarriak zaizkigulako.

Gako-hitzak

Berbaldi-periodoa, tentsioa-baldintza-irtenbidea, topikoa, berbaldi-euskarriak, artikulatzaileak, fatikoak.

0. SARRERA-HITZAK

Denok dakigu azkenaldi honetan zenbaterainoko garrantzia hartu duen euskararen irakaskuntzan -edozein hizkuntzarenean ere bai- ahozkoak eta mintzamenak.

Eta ahozkoaren barnean tarte handia egin zaio debateari. Arrazoi bat baino gehiago dago horretarako. Besteak beste, gizarte mailan, debatea eguneroko praktika bihurtu da, eta gainera, giza bizitzan parte hartzeko tresna bat ere bada. Gauzak horrela, ez da harritzekoa hizkuntzaren irakaskuntzan ere debatea irakaskuntza-gai izatea. Auzi horri buruz gehiago jakin nahi izanez gero, ikus hementxe bertan I. Idiazabal, E. Garro eta

L.M. Larringanek idatzitako “Ahozko debateetako zenbait baliabide diskurtsibo eta haien didaktika”.

Esku-hartze didaktikoak lan objektibo eta teknikoa eskatzen duen neurrian, eskolak eskuratu, asmatu eta bideratu egin beharko ditu, hasieratik bertatik egin ere, debate-jardunaren osagai enpirikoak, ezaugarriak, deskripziorako bideak, eta azalpenak.

Lan honen helburu nagusia da debateetako berbaldiak duen funtzionamenduaren analisi didaktikoa egitea, edo horretarako bideak urratzea behintzat. Beste hitz batzuetan, debate-jardunaren deskripzioa egiteaz gainera, deskripzio hori bera didaktikarekin lotu nahi da.

Beste lan batean du abiaburua, I. Idiazabalen eta L.M. Larringanen (2005) *A propos de la structure périodique des énoncés oraux. Un outil pour la didactique des débats scolaires* izenekoan, hain zuzen. Edonola ere, egokiago iruditu zaigu aipatu lan horren itzulpena egin ordez, “bertsio berri” bat egitea. Bertsio berria egitean baina, aukera izaten du egileak, idatzi duenaz gainera, idatzi ez duenaz aritzeko. Hau da, aukera izaten du egindako lana argitzeko, osatzeko, aberasteko eta, egoki balitz, zuzentzeko. Bertsio berri honetan, beraz, arestian aipatutako lanaz gain, beste batzuk ere erabili ditugula adierazi nahi dugu.

Artikulu hau bi ataletan dago banatua: lehenengoan, Luzzati egilearen (1985) planteamendua edo proposamena ekartzen da. Bere horretan ekartzen saiatuko gara, hau da, ez dugu bertan geure aldetik edo geure golkotik ezer erantsi, adibideren bat izan ezik. Bigarrenean, aipatu proposamena lagun hartuta, Luzzatiren datuak, deskripzioak eta azalbideak guk geuk ditugunekin erkatuko ditugu.

1. LUZZATI EGILEAREN PLANTEAMENDUA: PERIODO BIDEZKO DEBATEAREN ANALISIA

Luzzati egileak ahozko hizkuntza-erabilera jakin bat aztertu nahi du, *Le masque et la plume* emanaldietakoa hain zuzen. Emanaldiak Pariseko kafetegietan eginiko eztabaida-solasaldiak dira. Eztabaida horien komunikazio-egoera, oro har, bat dator debatearenarekin: animatzaile edo moderatzaile bat izan ohi dute, publikoa da, gaia aurretiaz aukeratzen da, parte-hartzaileak gaian adituak dira, eta abar. Horregatik, debate gisa har daitezke. Egileak berak ere, zenbaitetan, debate izena baliatzen du; baita Morel egileak ere (1985: 28.or).

Gauzak horrela, debateetako hizkera ez da hizkuntza arrunta, lagunarteko bat-bateko hizkera; haren erabilera berezia eta formala da, erabilera publikoari dagokiona, hain zuzen.

Lehenik eta behin, grabatu eta transkribatu egin ditu aipatu solasaldiak; ondoren, haien analisi diskurtsiboa egin nahi du, baina alderdi jakin bati eman dio arreta: enuntziatuen eratze-moduari. Eta hona Luzzatiren lehen konstatazioa: bildutako corpuseko berbaldien azterketa egin nahi bada, "esaldia" unitatea (juntagailu bidezko loturaz gauzatua) baztertu eta beste unitate bat bilatu beharra dago: egileak "periodo" unitatea proposatzen du haren ordez. Esaldien arteko lotura juntagailuz egiten da; periodoen artekoa, ostera, "berbaldi-euskarrien" bidez.

1.2. Berbaldia

Transkripzioetara etorriz, berbaldia enuntziatu osatua da, eta enuntziatu bakarrak zein gehiagok osatzen dute. Laburra edo luzeagoa izan daiteke berbaldia. Badu zerikusirik hitz-hartzearekin eta hitz-txandarekin, betiere ekitaldi horietako jardunari egokitzen baitzaio. Alderdi horretatik, "monologala" da. Hiztunak berak erabaki dezake berbaldiaren amaiera, edo kanpotiko beste batek eragin. Azken kasuan, hausten dena ez litzateke berbaldia bere osotasunean, berbaldiaren azken periodoa baizik.

1.3. Periodoa

Periodoa unitate semantikoa eta formala da. Grabaketei eta transkripzioei esker, modu objektibo batez zedarri eta bana daitezke periodoak. Zedarritzea egite aldera, irizpide sintaktikoak eta prosodikoak erabil daitezke, besteak beste. Markatzaile sintaktikoen artean, "berbaldi-euskarriak (laguntzaileak)" izeneko markatzaileak aurkitzen ditugu. Eta kokagunearen arabera, bi motatakoak izan daitezke: a) fatikoak (frantsesez, *hein bon, quoi, euh*: "sorte de ponctuation orale [ils] ont une fonction structurelle moins forte

que les *articulateurs* (*ben, alors, si, quand*), [… et visent plus] à établir une communication [qu'à] transmettre un message" (1985 : 68); b) artikulatzaileak (artikulaziogileak); toki jakin bat dute periodoaren barnean: sintagmen buruan agertuz gero, baldintza-guneari edo irtenbide-guneari lotzen zaizkio ezinbestean. Indar-egituratzaile handiagoa dute.

Prosodiari dagokionez, honako hau dio Luzzatik: "La période est un unité que souligne la prosodie". Dakigunez, trantsizio-guneak izan ohi dira mozketarako unerik aproposenak; gune horiek, jakina, erlazio estua dute prosodiarekin; horrela, une horietako eragina erraz jaso dezake periodoak. Egia esan, prosodiak (azentuak, intonazioak, ozentasunak...) adierazten digu, askotan, periodo bat non amaitu den eta hurrengoa non hasten den.

1.4. Berbaldi-periodoaren egitura

Goian esan bezala, periodoa egitura formala ere bada. Hala, hiru osagai edo gune bereizten ditu: tentsioa, baldintza eta irtenbidea (erabakia).

Hau izan liteke periodoaren egitura eskema gisa:

Periodoa:	*Tentsioa*	*Baldintza*	*Irtenbidea*	
	Jonek	gose den*ean*	ba	jan egiten du, bai, e
	Gose *ba*da	orduan	ezta /bale	

Berbaldi-euskarriak : artikulatzaileak fatikoak

Periodoaren egitura bat:

Fatikoak Tentsioa Baldintza Artikulatzaileak Irtenbidea Fatikoak

Azal ditzagun ondoren sakonago hiru osagaiok. Nolanahi ere, bigarren atalean berriro aztertuko ditugu.

1.4.1. Tentsioa:

Periodoa egituraren lehen osagai da. Enuntziatu(ar)en ainguratze-puntu gisa funtzionatzen du; gaiarekin edo topikoarekin du zerikusia; ez dago ezinbestean subjektu gramatikalari lotua, hau da, ez da lotura sintaktikoetan oinarritzen, ezta lexiko-

semantikoetan ere. Tentsioak lagun izan ohi ditu beste partikula fatiko batzuk: *beno, baaa,....* baina ez du elementu horiekin loturarik. Edonola ere, ez du presentzia esplizitua beti, hau da, "isilean" gera liteke. Luzzatik dioenez, isiltzea edo inplizitu geratzea nahiko normala da lagunarteko solasaldietan edo lagunarteko hizkeran; debate-jardunean, aldiz, badirudi nekezago isiltzen edo ezkutatzen dela. Egilearen beraren hitzetan: "Premier élément de la période. Il comporte l'essentiel, ce qui fait le but de l'énoncé". (1985:63).

1.4.2. Baldintza:

Periodoaren bigarren osagaia da. Emandako irtenbideari buruzko azalpenak, zergatiak, justifikazioak eta negoziazio-ahaleginak biltzen ditu. Irtenbidearen edo erabakiaren aurretik zein ondotik etor daiteke. Egilearen beraren hitzak ekarriko ditugu: "Second élément de la période. Il comporte l'explication, la cause ou la justification de la *résolution*". Luzzatiren ondorioetako bat da badela desberdintasunik osagai horri dagokionez debate-jardunen eta bat-bateko eta lagunarteko solasaldi arrunten artean. Hori da debate-jardunean gehien lantzen eta nagusitzen den osagaia.

1.4.3. Irtenbidea:

Periodoa osatzen duen hirugarren osagaia da. Frantsesezko hitza "*resolution*" da. Enuntziatutakoaren helburua biltzen du, hau da, funtsezko xede-asmoa agertzen. Alderdi horretatik, ilokuzio eremura eramaten gaitu.

Luzzatiren hitzetan: "Troisème élément de la période. Il comporte l'essentiel, ce qui fait le but de l'énoncé". (Idem)

1. 5. Periodo-egitura mota bi

Periodoaren hiru osagai edo gune aipatu ditugu. Osagai edo gune horiek elkarri kateatuta agertzen dira. Kateatze hori, nolanahi ere, modu desberdinez egin daiteke, periodoaren guneak ez baitira berbaldi guztietan segida eta molde berean egiten. Esan gura da periodo-osagaien kateaketa hori modu desberdinez antola daitekeela berbaldi motaren arabera. Era honetara:

Tentsioa-baldintza-irtenbidea (erabakia) gisa

Edo, beste honetara:

Tentsioa-irtenbidea (erabakia)-baldintza

Berbaldien arabera, desberdina da osagaien segida eta kateaketa, eta hori berbaldien ezaugarri bihurtzen da.

Balizko berbaldi baten eskema moduko adibidea dugu segidako hau:

(1) *Jonek jan egiten du gose delako (baita)*

Formula horrek hainbat errealizazio onartzen ditu, hots, ez dago modu bakarra edo ezinbestekoa dena. Horrela:

(2) Hemen eta gaur, bakea behar dugu

Periodo baten barnean hainbat alderdi aurki daitezke. Jo dezagun hurrengo adibideetara:

(3) Jonek, bada, zera egiten du / baaa jan egiten du / hau da, gose da hura

(4) "*Ez nire ustez / nire ustetan, / hemen eta orain , gertatzen dena da gauzak gaizki planteatuta daudela, hau da (bestela esanda...), ...*"

Adibide horietako enuntziatuetan, ondo erreparatzen badiegu, nolabaiteko zatiketa ageri da, aurkezle-funtzioa egiten duten elementu batzuen laguntzaz betiere (frantsesez "c'est" esan ohi da):

Zer egiten Jonek? / Jan egiten du / Jon gose da

Ez nire ustez / nire ustetan / hemen eta orain: = tentsioa

Gauzak gaizki planteatuta daudela:= irtenbidea

Hau da, bestela esanda, ... : = baldintza

Modu horretako multzokatzerik egiterik ez dagoenean, nekezago antzeman da periodo-egitura. Esaterako:

(5) "*bueno, baa ee guk ee gauza bera datorren, hurrengoan hitz egingo dugu zeren eta / zergatik, arrazoi*"

Sarri, periodo-egiturako gaia, hots, tentsioa, esataria bera izan ohi da edo haren iritzia:

(6) "*Nik aitortzen dut (*TEN*) beldur izan naizela (IRTEN) zeren eta... (BAL)*"

Periodo mota horiek, betiere Luzzatiren ustez, berbaldi-euskarriak izan ohi dituzte lagun: *hau da, lako, -eta, ez gero, beno ba, beraz, horrela...*

Luzzatik ondorio hau ateratzen du: *Le masque et la plume* berbaldietan periodo kausalak dira nagusiki ateratzen direnak, eta aldea nabaria da ahozko hizkera bat-batekoarekin konparatuz gero. Hori dela eta, nagusitasun horrek debate-jarduera ezaugarritzeko balio duela ondorioztatzen du.

1.6. Berbaldi-euskarriak

Bi multzo nagusi bereizten ditu Luzzatik:

a) *Artikulatzaileak*

Berbaldi-euskarri mota bat dira. Esaterako: "*ongi*", "*orduan*" (frantsesez: "*ben*", "*alors*" ..) oso ohikoak dira bat-bateko ahozko hizketan; "*zeren*", "*-lako*", "*-ez gero*"... periodoaren azken gunea sartzeko erabili ohi dira. Artikulatzaileek berbaldia antolatzeko balio dute, eta beren presentzia eta maiztasuna kontuan hartuz gero, baita berbaldia ezaugarritzeko ere. Hau da, funtzio sintaktikoaz gainera, badute ere rol diskurtsibo bat. Era honetara: "*-lako*"k subordinazioa eragiteaz gain, berbaldi-gune bat ere marka dezake, hots, periodoaren osagai bat.

b) *Fatikoak*

"Les phatiques ("*e*", "*ezta*", "*bai*", "*b(u)eno*" (frantsesez, *hein, eh, bon, quoi euh*...) peuvent apparaître parfois comme une sorte de ponctuation oral" (68.or). Egituratze-funtzioak baino gehiago, komunikazio-funtzioak betetzen dituzte. Ahozko bat-bateko hizketan, periodoaren bukaeran azaldu ohi dira, edo, noizbehinka, aurreneko bi osagaien artean. Periodoaren hasieran agertuz gero, maiz "*bada*", "*orduan*"... gisako elementuen lagun izan ohi dira

1.7. Periodo bidezko funtzionamendua

Hauxe da Luzzati egilearen proposamenaren alderdirik edo punturik funtsezkoena, planteamenduaren erdigunearena, hain zuzen. Honako hau ez da adierazpentzat hartu behar, formulatzat baizik:

Hau da

Jonek/ jan egiten du / gose da (eta)

Zeren

Periodo bidezko funtzionamendua aztertze aldera, berbaldi luze baten azterketa eskaintzen du egileak. Guk ez dugu berbaldi horren testua hona ekarriko. Ez dugu haren euskal ordezkorik ere emango orain. Hona arrazoia: Luzzatiren oharrak eta ondorioak frantsesezko testuari (berbaldiaren) buruzkoak dira, eta miraria litzateke bietan -haren testuan eta gurean- fenomeno bertsuak aurkitzea. Geroago baina, euskarazko testua ekarriko da. Edozein modutan ere, ondorio gisa dakartzan jakingarriak ekarriko ditugu. Honelatsu:

a) Berbaldia periodotan multzoka daiteke.

b) Gutxi dira osagai ez-periodikoak. Berbaldia, bere osotasunean, erraz antzeman daitekeenez, ez da besterik gabeko periodoen batura, hau da, ez da periodo multzo soila. Berbaldia aztertzean, periodo bidezko analisia zerbait oinarrizkoa eta funtsezkoa da, inolaz ere ez osoa.

c) Ez dago arau zehatzik ematerik berbaldi-euskarriei buruz: hamabi periodotatik bostek artikulatzaile bat dute; beste bik, ordea, bina. Bi periodok fatiko bana ageri dute. Hamabi periodotik zortzik hasieran “eta” bat dute (bakarra, bikoiztua, edo “euh”rekin konbinatuta).

d) Periodo-egitura ez da beti argia, zehatza; sarritan, osagai ez-periodikoak biltzen ditu.

e) Tentsioa deituriko osagaia maiz isilean geratzen da; kasu horietan testuingurura jo beharra dago hura argitzeko.

f) Periodo batzuek ez dute espero genuen kausazko egitura agertzen: badira egitura kontsekutiboa ere erakusten dutenak. Ohar gaitezen azkeneko egitura hori ohikoagoa dela bat-bateko hizketan.

Gauzak horrela, konstatazio hau egin daiteke: bi periodo-egitura agertzen zaizkigu. Batetik, egitura kontsekutiboa: tentsioa-baldintza-irtenbidea hurrenkeraren araberakoa, bat-bateko ahozkoan erabiliena edo arruntagoa. Bestetik, kausa-egitura moldekoa, hau

da, tentsioa-irtenbidea-baldintza erakoa. Azken hori da *Masque et la plume* jardunean gehien ateratzen dena, nahiz eta, esan bezala, beste hura ere nahastean izan.

Gauzak horrela, honako hau baiezta daiteke: ahozko berbaldian bi formulazio (antolaketa) mota bereiz daitezke: kausazkoa eta kontsekutiboa. Aurrenak, debate-jarduna ezaugarritzeko balio du; bigarrena, berriz, lagunarteko ahozkoan agertzen da batez ere.

2. ATALA

2.1. Gure esatekoak eta ekarria

Aurreko atalean, Luzzati egilearen planteamendua ekarri dugu. Baina, hasieran esan bezala, guk ere ekin diogu dagoeneko debatea aztertzeari (ikus bibliografia-erreferentziak). Halatan, gu ere zerbait esateko (kritikatzeko, gehitzeko, zuzentzeko, aberasteko...) moduan aurkitzen gara. Gauzak horrela, atal honetan konparatze- eta kontrastatze-lanari ekingo diogu, baita kritika eta iruzkinak egiteari ere, besteak beste. Konparazioa mesedegarri izango zaigulakoan gaude. Konparatzeak, dudarik gabe, gauzak modu zorrotzagoan egitea eskatzen du, egokitzea, aldaketak eta zuzenketak egitea, eta aberastasun-iturri izan ohi da betiere.

Aurrera egin baino lehen, gure azterketarako erabili dugun corpusaren berri emango dugu. Corpusean bi "motatako" –hala esaterik badago- debateak biltzen dira: alde batetik, 12-14 urte bitarteko gazteekin (ETBko *Hori da arrazoia* saioan) egin ziren zenbait debate; bestetik, adinekoekin Euskadi Irratian eginikoak. *Hori da arrazoia* saiotik bi erabiliko ditugu oraingo honetarako: "Hurrengo belaunaldia matxista izango al da?" (M), "Maitasuna eta sexua: zer da hori" (M&S). Bestetik, aldiz, hiru: "Politikaz. Asteko berrien errepasoa" (ABE); "Eusko Jaurlaritza berria" (EJB); eta "Sexuaren heziketa" (SH).

Parte-hartzaileei dagokienez esan behar da, gaztetxoentzako (G) debatea eginkizun edo mintzapraktika berria dela ia guztientzat, ez baitaude ohituta jendaurreko eztabaidetan parte hartzen. Guztiz bestelakoa gertatzen da adinekoekin (A), eskarmentudunak baitira[1].

[1] Debateen transkripzioak Eneritz Garrok egin ditu.

Gure esatekoak eta iruzkinak antolatze aldera, lehen ataleko urrats-segida berari jarraituko diogu.

2.2. Berbaldia nozioaz

Berbaldia nozioak esku-hartze bakoitzean ekoiztutako enuntziatu multzoari egiten dio erreferentzia, baita haren eraikuntzari ere. Zentzu horretan, beraz, ez dator bat solasaldi aztertzaileek hitz horri eman ohi dioten zentzuarekin. Eta esku-hartzearen alderdi monologalari egokitzen zaiolarik, zer esan hitz-txanda horiek oso motzak direnean? Emandako definizioaren arabera, jakina, lerro -edo lerro erdi- bakoitza berbaldi bat da, Adibidez:

(7)

1. JF baina zergatik / kanpoko lana zer da atseginagoa / garrantzitsuagoa o / zer da / zergatik?
2. NB ez / ez / ze kanpoko lana gizonezkoentzat da
3. ?? garrantzitsuagoa da
4. ?? ba zeba
5. NB zeba beti hola izan dalako (karraxika eta erdi hasarre)
6. MA baina ez dauka zergatik izan beharrik hola
7. NB bai
8. MA zeba
9. MZ baina betidanik tradizioa hola izan da
10. NB zeba beti hola izan dalako
11. MA baina ez dauka zergatik izan beharrik hola nino
12. AB baina zuri kapritxo baten jarri zaizulako aldatu behar degu?
13. MA eske ez da neri sartu zaitela kapritxo bat
14. AL baian ez da guri bakarrik neska guztiei jarri zaie kapritxo hori
15. AB ba ez gea gu izorratuko zuengatik
16. MA ta gu zeatik izorratu behar gera / zuengatik?
17. MZ baina tradizio bat ere segitu behar da
18. MA ba / a zer tradizioa
19. JF (…)

(M debatetik hartua)

Berbaldia nozioak erosoagoa dirudi interbentzio luzeagoetarako. Edozein kasutan, interpretazio-balio txikia du, eta ez da oztopo bere horretan hartzeko nahiz uzteko.

2.3. Periodoaz

Berbaldia baino funtsezkoago da "periodoa" nozioa. Eztabaidagarriago ere bai. Esan dezagun zer duen alde eta zer kontra.

Gure ustez, nozio positiboa izan daiteke bai ahozko hizkuntza aztertzeko bai debatea aztertzeko. Hona arrazoiak:

- Esaldia -eta enuntziatua bera- gainditzeko aukera ematen digu. Horrela, perpausa edo esaldiaren informazioaz haratago eramanez, maila bateko baino gehiagoko fenomenoak biltzeko aukera (semantika, pragmatika, prosodia...) ematen du.
- Unitate semantikoa eta formala da; alderdi horretatik, forma eta edukien arteko lotura egiteko bidea eskaintzen du. Hiztuna berbaldi batean murgilduta dagoenean, asmo komunikatiboak (zentzua) eta halako "ideien" edo osagaien antolamendua batera biltzeko aukera eskaintzen du.
- Ez da "sekuentzia" nozioarekin nahasten. Debate-jardunari ondo egokitzen zaio.

Baina dena ez da horren erraza. Dena ez du aldeko. Izan ere, saihestu egiten ditu debate-jardunak dituen garrantzi handiko zenbait alderdi, besteak beste, kortesiari buruzko auziak, edo solaskidetza eta lankidetza mailako gertakariak. Edo interakziozko gorabeherak.

Zer esan periodogintzaz, hau da, berbaldia periodo multzotan banatzeari buruz? Egileak berak gogoratzen digu, transkripzioetan-eta, periodoak definitzea eta artikulazio-guneak zehaztea ez dela beti gauza erraza. Izan ere, gerta daiteke bi aztertzailek modu desberdinean multzokatzea berbaldi bera. Hots, berbaldi berean periodo multzo desberdinak egitea. Multzokatze hori egiteko, lagungarri gisa, zenbait bitarteko aipatzen ditu egileak, hala nola, markatzaile bereziak eta prosodia. Baina, lan enpirikora jaitsi ahala, duda handiak sortzen zaizkio aztertzaileari. Geuk ere izan dugu horrelakorik. Berbaldi-markatzaileek ez dute presentzia bera hizkuntza guztietan. Ezta estatus bera ere. Ziurragoa da prosodiaren laguntza, baina gehiago landu beharra dago. Gure corpuseko berbaldietan, esaterako, oso gutxitan agertzen zaizkigu Luzzatik aipatzen

dituen periodoaren banaketa egiten duten artikulaziogileak. Edozelan ere, gauza bat da markatzaile zehatzak eta jakinak izatea, eta besterik, periodo bidezko multzoak egotea. Gure ustez badira, aipatu irizpideez landa, beste zenbait bitarteko aintzat hartu beharrekoak periodo multzoak egitean: prosodiak, esaterako, zeresan handia du periodoak banatzean, lotura ukaezina baitago erritmoaren, demarkatzearen eta multzokatzearen artean. Kontuan hartu beharrekoak dira, berebat, alderdi kognitiboak, bereziki artikulazioa egiten duen elementurik ez dagoenean, edo alderdi semantiko-pragmatikoak: azalpena, deskripzioa, adibidegintza…

Jakina, bitarteko horiek gehiago sakondu eta landu behar dira. Elementu bat baino gehiagoren arteko konbinazioa ere muga-markatzaile izan daiteke.

Beste batzuetan, ostera, aski da "eta" bat edo "baina" bat agertzea. Horiek, eurenez, ez dute periodoa markatzeko indarrik, indar automatikorik behintzat, baina, zenbaitetan, beste elementu batzuek lagun, gauza dira periodoak, edo periodo barneko osagaiak bereizteko. Zer esan, esaterako, idatzizko puntu eta jarrai edo aparte ondoren datorren "eta" edo "baina" partikulez? Holakoetan, dudarik gabe, aski da erritmoa aldatzea gai berri bat edo gairen nolabaiteko dibertsifikazioa eragiteko, eta ondorioz periodoz aldatzen da. Eta alderantziz, ager daiteke markatzaile kontsekutibo bat, "*beraz*" esate baterako, baina ez du inolaz ere periodo-gunez aldatzen, oso tokikoa edo puntuala baita haren eragina.

Ez da erraza, bada, periodoaren muga-hesiak zehaztea, periodoa non hasten eta non bukatzen den esatea. Ez dago erlazio automatikorik edo biunibokorik artikulatzaileen eta periodoen banaketaren artean. Esan nahi da ez dugula elementu-markatzaile propiorik edo esklusiborik.

Edozein modutan, periodo multzoak egitean, benetan lagungarri izan daitezke *Centering Theory* delako teoriaren bidetik eginiko deskripzioak. Lan horietan, topiko/erdigunea ("centering") gertakariak aztertzen direlarik, zenbait hizkuntza-adierazpenen balio diskurtsiboa hau litzateke, biltzea, harira jotzea; hots, azken batean, topikoa markatzea. Horietakoak genituzke, esate baterako, honako adierazpen hauek: "*X puntuari dagokionez,...*", "*harira etorriz,...*", "*X dela eta*",..., "*-z den bezainbatean....*", ... ikus Porhiel (2004: 12 eta 34-38 bereziki; eta Péry-Woodley (2000). Ohar gaitezen adierazpen horiek, alde batetik, ezkerraldera agertzen direla betiere, eta, bestalde,

ondorengo proposizio multzo bat hartzen dutela. Halatan, tentsioa edo topikoa markatzen duten heinean, giltza bat izan daitezke periodoa non hasten den erabakitzeko.

Aipatu berri ditugun auziak (dudak, indefinizioak...) ilustratze aldera, ikus eranskinean agertzen diren adibideak.

2.4. Periodoen egituraz eta osagaiez

Luzzatik hiru osagai bereizten ditu periodoaren barruan: tentsioa, baldintza eta irtenbidea. Aipaturiko osagaiok banan-banan iruzkinduko ditugu ondoren.

2.4.1 Tentsioa

Tentsioa periodoaren lehen osagaia da, eta gaiarekin zerikusi zuzena duela dio Luzzatik.

Eta gehitzen du tentsioaren presentzia linguistikoa handiagoa dela debate-jardunean, bat-bateko edo lagunarteko solasaldietan baino. Baina, horretaz gainera, aipatu egileak ezer gutxi dio osagai horri buruz. Gure ustez, ostera, merezi du eta komeni da osagai hau gehixeago zehaztea. Debateei buruzko analisietan beren-beregi aztertu izan ditugu behin baino gehiagotan gaiari buruzko gorabeherak, besteak beste, garapen-moduak. (Ikus Garro eta beste, liburu honetan bertan, edo Idiazabal & Larringan, 2005b). Hala, zerbait gehitzeko moduan gaude.

Argigarri gisa ohar bat: gure lanetan “gaia”, “ibilbide tematikoa”, “topikoa” hitzak erabili izan ditugu besteak beste. Oraingo honetan “tentsioa” nozioa gehitzen diegu aurrekoei. Edozein kasutan, oraingoan “topikoa” terminoa erabiliko dugu.

Topikoa ez da ezinbestean subjektu gramatikalaren baliokidea: hiztunak, hitz egitean, hitz-egite horretan adierazten duenari egiten dio erreferentzia. Topikoa “aboutness”, “à propos” (Berthoud, 1996), edo “givenness” terminoetan ulertzen dugu, hau du, testuinguru jakin batean entitate baten eta predikazio baten arteko erlazioa adierazten du topikoak. Beste hitzetan esanik, topikoari zeri buruzkoa eta zeintasuna bermatzea dagokio. Topikoak biltzen duen “esanahi sistematikoa”, “esanahi tematikoa” dei genezake eta “esanahi ilokutiboa” iruzkinak (*comment* delakoak) biltzen duena.

Eman dezagun adibideren bat edo beste.

(2a) Hemen eta Gaur (TOP), bakea behar dugu (IRUZ)

(2b) “... / bakea behar dugu //”

(?2c) “ hemen eta gaur//…..//”

(8a) “Dieta /TOP), bihartik aurrera //” IRUZ F= ironiazko agindua

(8b) “ .../ bihartik aurrera //” IRUZ F= agindu orokorra

(8c) “Dieta / TOP...//” F= ¿?

Adibide horietan honako hau ikus daiteke:

a) Topikoak ez duela ilokuzio-baliorik.

b) Topikoak iruzkinaren interpretazioa egiten laguntzen duela.

c) Testuaren ikuspuntutik, topikoa gordean (isilean) gera daitekeela. Horrek esan nahi du “hautazko” osagaia dela bere agerpen linguistikoari dagokionez.

Baina nola azaldu “hautazko” izaera hori? Zehazkiago esanik, ba al dago haren presentzia/isiltze linguistikoa eragiten duen faktorerik? Zein da faktore hori? Zer egin dezake hiztunak topikoarekin? Ikus dezagun zerk eragin edo erraz lezakeen topikoa modu esplizituan vs. inplizituan ematea.

a) Sintaxiak ez dakar topikoaren adierazpen linguistikoa; bestela esanik, ez dago sintaxiaren jokotik azaltzerik. Itzul gaitezen goiko adibideetara:

(2b) “... / bakea behar dugu //”

Adibide horretan ez dugu topikoaren adierazpen linguistikorik egiten; soilik iruzkinaren alderdia agertzen da. Bestalde, F balioa: = baiezpena da.

(2c?) “ Hemen eta gaur /…..//”

Hurrenkera horrek, topikoari dagokion tonuera baliatuz gero, ematen du amaitzeke edo zintzilik geratzen dela, ez baitu ilokuzio (IRUZ) baliorik. Entzulearen esku dago zer interpretazio egin. Ikus daitekeenez, ez dago derrigorrezko loturarik sintaxiaren eta topikoaren artean.

b) Topikoa modu esplizituan/inplizituan ematea ez da joko semantikoaren araberakoa. Adibidez:

(8a) “Dieta /TOP), bihartik aurrera //” IRUZ F= ironiazko agindua

(8b) “ .../ bihartik aurrera //” IRUZ F= agindu orokorra

(8c) Dieta / TOP...// F= ¿?

c) Topikoa modu esplizituan/inplizituan ematea ez dago informazio ezaguna vs. berria terminotan azaltzerik ere. Izan ere, ezaguna/berria garapen-ibilbidea azaltzeko nahiko da esatea ilokuzioa dela derrigorrezkoa, eta, horregatik, berria ere bai. Izan ere, iruzkin gisa funtzionatzen duen hizkuntza-adierazpena berria da, esan gura da, ilokuzio legez berria dela, zeren eta soilik ilokuzio-egintzak aldatu ahal du mundua. Izatekotan, horixe da informaziorik oraingoENA eta berriENA.

Laburbilduz, honako arazo hauek plantea daitezke topikoaren inguruan:

a) Berbaldia (Luzzatiren adieran) luzatuz gero –edo luzatu heinean- gehiagotan agertzen da topikoa esplizituki berritzeko aukera (edo, beharra).

b) Berritze esplizitua, hots, hizkuntza-adierazpen bidez egina, modu desberdinez egin daiteke: izenorde soilez, espresio sarreragilez ("x-ren ildotik, "x-k esandakoari jarraiki", "arabera", "harira eta",...), edo espresio lexiko berriak sortuz: anafora kontzeptualen bitartez, besteak beste.

c) Topikoa garatzeko hainbat estrategia erabil daitezke: hasierakoaz gain, mantentze-estrategia, zabaltze- edo eranste-estrategia, desbideratze-estrategia, edo aldatze-estrategia.

Ikus daitekeenez, ugariak eta bestelakoak dira topiko funtzioa izan dezaketen "hautagaiak". Gauzak horrela, ba al dago jakiterik zer faktore edo parametrok eragin lezakeen: a) topikoa modu esplizituan ematea, eta b) zer "hautagai" lehenesten den, hau da, nolabaiteko hierarkiarik dagoen?

Aurrerago esan den bezala eta itxura denez, berbaldiaren luzera izan daiteke topikoa modu esplizituan eman beharra baldintza lezakeen faktore bat. Gure azterketetan, ia guztiek betetzen duten legea da. Baina zer beste puntuari buruz? Hemen adituen (A) eta gazteen (G) debateetako aldeak nabariak eta sakonak dira. Gauzak horrela, azalbide bat proposa genezake, garrantzizkoa gabiltzan auzirako: badela hor "egiazko lege diskurtsiborik", debate-jardunari dagokion legea hain zuzen. Eta debatekidea, adinekoa zein gaztea izan, euskara onean nahiz mordoiloan aritu, debate-berbaldi lege horrek harrapatzen duela.

2.4.2. Baldintza osagaiaz

Baldintza osagaia da debate-mintzapraktikaren zutabe edo ardatz nagusia. Pertinenteena eta garatuena ere bai, haren bidez eta haren altzoan jorratzen baita justifikazio-kausa alderdia.

Arrazoitze- eta negoziazio-gunea da. Argudio eta justifikazio-harrobi ere bada. Emozioen, sentipenen, kezken eta grinen gestio-gune ere bai. Hori guztia bideratzeko hainbat modu diskurtsibo azter daitezke: kontzesioa, deskripzioa, azalpena, adibidegintza, konparatzea... Baldintza osagaiaren orea egiteko erabiltzen den lehengaia uste orokorrak dira, bizitzako topikoak .

Luzzatiri jarraiki, tentsioa-irtenbidea-baldintza izango litzateke debate-jarduneko egitura ohikoena. Guk ez daukagu puntu hori baieztatzerik. Beraz, konprobatzeke eta azterkizun geratzen da debateetako kausa-egituraren nagusitasuna. Eta gure ustez, merezi du aztertzea, irakaskuntzarako bide eta tresna lagungarria izan baitaiteke.

Gogora dezagun debate-mintzapraktikaren ezaugarrietariko bat: auzia ez da iritzi bat izatea, ez eta hura modu zuzenean "botatzea" ere, baizik eta berbaldian bertan eta berbaldiaren bidez eraikitzea, parafrasi bidez, iradokiz, itzulika arituz, beste ahots batzuk ekarriz... Zentzu horretan, debateari argudiozko izaera zor zaio, non kontua ez den argudioak ekartzea beti, baizik eta edozein argudiorentzako pertsuasio bideak ipintzea. Gauzak horrela izateak, jakina, eragin ohi du berbaldiaren luzeran edo tamainan. Berbaldiaren luzerari dagokionez, aldeak nabarmenak eta sakonak dira A eta G debateen arteko emaitzetan. Ikus honako taula hau:

Datu kuantitatiboak. Hiru debateetako berbaldi edo hitz-hartze bakoitzeko hitz kopurua, ehunekotan.

(Iturria: Idiazabal & Larringan, 2003)

				-

"M" (Matxismoa, gazteak), "M & S" (Maitasuna eta sexua, gazteak), SH (Sexu-heziketa, adinekoak)

									Guztira	Guztira
		%		%		%		%		
		88,3		9,8		1,1		0,8		
“M&S”		81		16		3		-		
		44		17,7		16,2		23,5		

Ikus daitekeenez, SH adinekoen debatean, berbaldiak dezente luzeagoak dira. Izan ere, % 56 luzeak dira; hitz-hartzeen % 23,5ek 100 hitz baino gehiago dute. Gazteen debateetan (M eta M&S), ordea, ez dugu berbaldi luzerik; ia denak laburrak dira: % 81ek eta % 88,3k 20 hitz baino gutxiago dute. Nolanahi ere, zenbaitetan, hitz-hartze itxurazkoenetan, hain zuzen, luzatzeko ardura eta jokabidea antzeman daiteke.

Konbergentzia baten berri eman beharra daukagu.

2.4.3. Irtenbideaz

Osagai honek hiztunaren xede-asmoa biltzen du. Erabakigunea izanik, azken iritzia agertzea dakar. Gure aldetik, nahiago dugu ilokuzio-terminotan planteatu. Ildo horretatik, mundua nola aldatu nahi den adierazten da. Esan dezakegu, oro dela iritzidun. Eta, jakina, atal horrek ez du huts egiten, nola edo hala agertu, agertzen da beti.

2.5. Periodo-egituraz

Dena delakoa periodo bidezko multzokatzea, funtsezkoena hau da, periodo horiek denek, oinarrian, funtsean, ez dutela egitura bera. Zer esan puntu horri buruz?

Egia esan, guk ez dugu alderdi hori sakon eta beren-beregi aztertu. Areago: gure lanetan ez ditugu lagunarteko hizkera eta debate-jardunekoa konparatzen. Ez dugu konparazio hori egiteko aukerarik, beraz. Aitzitik, azaletik eta lehen begiratu batean, esan daiteke debatekide gazteek (G) bat-bateko egitura baliatu ohi dutela maiz eta usuenik. Halere, G debateetako hiztun batzuek, berbaldi luzeenak eta hornituenak eman dituztenek -

hoberenek edo-, egitura kausala osatzeko joera ageri dute. Adinekoei dagokienez, baieztatu egiten dira Luzzati egilearen ondorioak.

Gure ustez merezi du alderdi hau aztertzea, egituraren atalak zaintzea bezainbat izan baitaiteke baliagarri egitura osoa kontuan hartzeak.

2.7. Ondorio gisa

1) Azterketa honek, beste behin, berretsi egiten du komunikazio-egoera guztietan ez dela hizkuntza-modu bakarra erabiltzen. Ahozkoa ez dela uste bezain homogeneoa.

2) Debatea eta lagunarteko bat-bateko solasaldia bi-biak ahozkoak izanik, oso berbaldi saio bereziak dira. Besteak beste, topikoaren presentzia-modu desberdinak eta periodo-egitura bereziak dituzte ezaugarri.

3) Debatea, hizkuntza-praktika den aldetik, tradizioa -errutina- ere bada. Adanismoaren, alegia, hutsetik hastearen eta berriaren berriz ezer ez balego bezala hasteko tentaldia gainditu beharra dago betiere. Era berean, lagunarteko hizkerak debatean parte hartzen laguntzen badu ere, zenbaitetan oztopo izan daiteke, aldendu egiten baita.

4) Debatearen irakaskuntzan, erabaki sendoak hartu gura badira, etiketak jartzea baino zuzenago deritzogu deskripzio-saioak egiteari, azalpen beteak izatera iritsi ez arren beti.

Bibliografia

BERTHOUD, A.C.: *Paroles à propos. Approche énonciative et interactive du topic*, Orphys, Paris, 1996.

BRENNAN, S.E.: “Centering as a psychological resource for achieving point reference in spontaneous discourse”, 227-249, *in* Walter. M., Joshi, A., & Prince, E. (arg.): *Centering Theory in Discourse*, Clarendon Press, Oxford, 1998.

CHAROLLES, M.: “L’encadrement du discours: univers, champs, domaines et espaces”, *Cahiers de Recherche Linguistique*, 6, Université de Nancy 2, 1997.

DOLZ, J.: “La argumentación”, *Cuadernos de Pedagogía*, 216, (1993), 68-70.

DOLZ, J. & SCHNEUWLY, B.: *Pour un enseignement de l’oral*, ESF, Paris, 1998.

DE PIETRO, J.F., ÉRARD, S. & KANEMAN,-POUGATCH, M.: "Un modèle didactique du "débat": de l'objet social à la pratique scolaire", *Enjeux*, 39/40, (1997), 100-129.

GARCIA-DEBANC, C.: "Interaction et analyse du discours: Étude comparative de débats entre adolescents". *Études de Linguistique Appliquée*, 46, (1982), 98-118.

GARCIA-DEBANC, C.: "Quand des élèves de CM 1 argumentent", *Langue Française*, 112, (1996), 50-67.

GARRO, E. & IDIAZABAL, I.: "Debateak 10 urteko bi ikasle talde elebidunetan. Azterketa eta didaktika", *Ikastaria, 14*, (2005), 43-54.

IDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L.M. (2001A): "Berbaldiaren ildotiko euskalduntzea", *in Helduen euskalduntzearen II. eta III. Jardunaldiak. Udako Euskal Unibertsitatea*, Bilbo, HABE, 2001, 41-64.

IDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L.M. (2001b): "Ahozko euskara formala eta haren egitura sozio-diskurtsiboa", Soziologiako V. Euskal Kongresuan aurkeztutako komunikazioa, Bilbo, 2001eko martxoaren 1-3.

IDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L. M. (2001c): "Estructura dialogal y organización temática en el debate de adolescentes", Estatuko hizkuntzen eskurapenari buruzko nazioarteko III. jardunaldietan aurkeztutako komunikazioa, Málaga, 2001.

IDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L.M.: "The face threatening acts in children's debates", SRCLD-IASCL 9th Conference, Madison (Wisconsin). Komunikazioa, 2002.

IIDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L.M.: "Las estrategias de imagen en los debates. Una insuficiencia pragmatico-discursiva de adolescentes no entrenados", *in* Luque, G., Bueno, A. & Tejada, G. (Arg.), *Las lenguas en un mundo global. Languages in a global world. Actas del XX Congreso anual de la Asociación Española de Lingüística Aplicada*, Jaen: AESLA & Universidad de Jaén, (2003), 37-43.

IDIAZABAL I. & LARRINGAN L.M. (2005a): "A propos de la structure périodique des énoncés oraux. Un outil pour la didactique des débats scolaires", *in* J.-F. Halte eta M. Rispail (arg.), *L'oral dans la classe. Compétences, enseignement, activités*, Paris, L'Harmattan, (2005), 91-103.

IDIAZABAL I. & LARRINGAN L.M. (2005b): "La construcción discursiva del tema en

dos debates con jóvenes: consideraciones para la caracterización y la enseñanza del debate", *in* J.M. Oro, J. Varela eta J. Anderson (arg.), L*ingüística aplicada al aprendizaje de lenguas*, Santiago de Compostela, Universidade de Santiago de Compostela: Servizo de Publicacións e Intercambio Científico, 197-2, Larringan, L.M. (2002) "Debate con jóvenes: interlocución, tema y tarea", *Textos. Didáctica de la Lengua y de la Literatura*, 29, (2005), 21-30.

KERBRAT-ORECCHIONI, C.: "Les négociations conversationnelles", *Verbum*, 7 (2/3), (1984), 223-243.

LAFONTAINE, D.: "Oral/Écrit : où est le différence ", *Enjeux, 8*, (1985-86), 46-59

LAMBELIN, G. & BROSSARD, M.: "Étude de quelques aspects d'une conduite d'explicitation", *Langages*, 59, (1980), 53-61.

LUZZATI, D.: "Analyse périodique du discours", *Langue Française*, (1985), 65, 62-73.

LUZZATI, D.: "Rhétorique et description de l'oral", *Verba*, 25, (1998), 7-30.

MOREL, MARY-ANNIK: "Conjonction et phrase complexe dans le débat du Masque et la Plume", *Langue Française*, (1985), 28-40.

NONNON, E.: "Activités argumentatives et élaboration de connaissances: le dialogue comme espace d'exploration", *Langue Française*, 112, (1996), 67-87.

PÉRY-WOODLEY, M.-P.: "Cadrer ou centrer son discours? Introducteurs de cadres et centrage», *Verbum* XXII, 1, (2000), 60- 78.

PORHIEL, S: "Introducteurs de cadre thématique, *Cahiers de Lexicologie"*, 85, (2004), 9-45.

ROSAT, M-C.: «A propos de réalisations orale et écrite d'un texte argumentatif », *Études de Linguistique Appliquée*, 81, (1991), 119-130.

RUIZ BIKANDI, U. & TUSÓN, A.: "Explicar y argumentar", *Textos. Didáctica de la Lengua y la Literatura*, Graò, 29, (2002), 5-20.

ERANSKINA

"Eusko Jaurlaritza Berria" (EJB) adinekoekin egindako debatearen transkribapenetik zati bi aukeratu dira eta horietan periodoak markatzen ahalegindu gara. Periodoak bereizi ondoren, bakoitzaren barruan hiru atalak (tentsioa-baldintza-irtenbidea) kolore desberdinez azpimarratu dira, ariketa gisa, baliabideak eskaintzen dituen aukerak erakuste aldera. Atal bakoitzaren ondoren iruzkin-ohar batzuk ere ipini ditugu.

Erabilitako ikurrak:

[= periodoaren hasiera

] = periodoaren bukaera

Berdez: Tentsioa osagaia

Arrosaz: Irtenbidea osagaia

Gorriz: Baldintza osagaia

1) JE [nik / pentsatzen det / herritarrek / oro har / ilusioz hartu dutela prozesu hau // bi arrazoiegatik / batetik ilusio beharra zeukalako / zeatik urte asko pasa dira / nolabait iluntasunean / da argi puntu bat piztu danen / argi puntu horri eutsi dio / euskal gizarteak / berehala // da nik uste det bigarren arrazoia dala / urtetan nolabait / ixilpean egon den // izerea politikoa duen gatazka bati / eusteko aukera ematen digulako // eta / bi helduleku horiekin nik uste det / gizarteak guri erantzunkizun handia / eskatzen digula]

Oharrak:

a) Periodo bakarreko berbaldia da.

b) Osagaien segida: tentsioa – irtenbidea – baldintza.

c) Periodo-egitura: kausazkoa da ("bi arrazoirenGATIK: …").

d) Edozein kasutan, bukaeran, laburpen gisa, irtenbidea edo erabakia gogorarazten dugu.

2)

76. RE [ba ez / baino igual / beste prozesu bat montatu beharko litzake // Sabin / baina / asuntoa ez da / kale borrokan agente ez direnik / edo direnik / euskal herritarrokeko jendea / esatea // asuntoa // gehi0.ago da / nire eritzirako / elkarrizketa baten / elkarrizketatzaileek / aurrera / edo elkarrizketa garaian / elkarri / nola portatu behar duten / eta zer egin behar duten esan diotela / ez / eta komenigarritasunetik / haruntzago dijoa kontua // ta ni hizketan ari baldin banaiz / noski / suposatzen da / inoiz / ezertan / ibilitako jendea izan litekela / baina / agian / hori konpontzera goaz / baino // metodo bezela / onartzen baldin bada kale borroka erabil daitekela / edo gutxien gutxienez (↑) / kale borroka justifikatua dagoela / ba noski / ulertu behar da / benetan / zaila izan behar duela / elkarrizketa benetako bat burutzea eta / elkarrizketa baldintza egokietan aurrera ate ematea /] [ta orduan / pentsatzen det / zenbait jendek / klaro / hemen gauza asko esaten ari da ez / biolentziarekin bizitzen / agian / ohitu egin beharko dugula // ba ez dakit / jende / nolabait / terreno / bortizkeriaren terrenoan zaildutako jendea dela (↑) / hori egun batetik bestera aldatzea nekeza dela (↑) / eta ordun / ulertu egin behar dela (↑) / eta noski / ez zait iruditzen gauza hoiek guztiak on::gi daudenik / eta iruditzen zait / bueno eskubideen diskursoan kasi maximalista izan beharra dagola / bestela / momentu honetan / eta hitz egin behar den garaian / jendea ez baldin bada / **kapaz** / nolabait / demokraziaren arauak errespetatzeko / ba ez dakit prozesu horrek ze garanti izan dezakeen / edo berme izan dezakeen / etorkizunean

77. SI [baina nik uste dut / e // azkenengo adierazpenetan behintzat / nere ustez behintzat / eboluzio bat denok izan beharko dugu / eboluzioa / txipa / gaurko egunera / eguneratzeko // baina nik uste dut azken adierazpenetan argi geratzen dela / eatxeren bozeramaileengandik ere / ez duela batere laguntzen / eta beraz / nik uste dut hori pauso garrantzitsu bat dela / eta bueno / denpora eman behar zaie batzuei / beste batzuei eman zaien bezalaxe]

78. RE eta beste batzuek eskatzerik badaukate? / eske ez da eman zaiela

79. SI beste batzuek ez dute pekaturik egin? // <u>damutu al dira beste batzuk?</u>

80. RE <u>ez ez ez ez</u> // nik esan nahi det

81. SI *pesoekoak damutu al dira galekin izan zituzten hilketa eta horrelako gauzekin?*

82. RE bueno

83. SI [eta eskatu al zaie pesoekoei / horren onarpena egitea? / beraz / beraz / joka dezagun / nik uste dut / prespektiba / behin baino gehiagotan esan dut // gauza hauek ondo bideratzeko / prespektiba zabalagoa behar da // epe motzeko prespektibakin jokatzen ari bagara / **akabo** / beraz nik uste dut / denporak / erakutsiko duela / denon aldetik borondate bat dagola / borondate / zintzo bat gainera / esango nuke nik // ba bake prozesua bideratzeko / gisa eskubidetan oinarrituta gainera // eta argi dagona da / politikoki ere // indarkeriaren erabilpenak / batere ez duela laguntzen (↑) / azken batean / hor / harri txokorrak / jartzen ari direnei laguntza ematen dietelako / babesa eskaintzen diotelako / komunikabideen aldetik eta / nolabait / kristonak emateko //] beraz / nik uste dut / hori / geoago ta / euskal gizarteak geroago sakonagoan sartuta daukala / eta frutuak / emaitzak / epe motzean ikusiko ditugula / baina ez dakidana da / hain ziur ez nagoena da // besteen aldetik / jokabide hauen bitartez // hauteskundetan nolabaiteko etekinak ateratzeko asmotan dabiltzan horiek // txipa aldatzeko gogorik duten ala ez / nere zalantzak ditut

XG Ibarretxek eskuartean atera nahi duen hori edo / asmoa badirudi // Sabinek berak esan du / oso / oso inportantea da / e / behintzet guztion partetik / edo parte hartu behar dutenen hoien aldetik / neretzako / gauza bat garbi izan behar baldin bada / euskal herriko partiduekin osatuta // eta / asmoa baldin bada / elkarrizketa hoien ondoren / guztiok ados / eta / berea egingo duten akordio bat lortzea baldin bada / hau da / inor ez bazterrean utzi // hori da inportantea / eta horretarako bideak / e / jarri behar dira / bideak jartzerakoan hasten baldin bada norbait / kondizioak jartzen / besten bati // elkarrizketa hasi aurretik // gaizki hasten gera / elkarrizketak ezin daitzake aurre baldintzaik izan / momentu honetan / e /] [momentu honetan // etzait egokia iruditzen / pepek eta pesoek / ba / azaldu dute / bere bozeramaileen partetik / kale borrokaren istorio hori / euskal herritarrokek definitu beharko lukela / aldez aurretik / hitz egiten hasteko / bestela / beraiek ez daudela hor // buo / nik uste dut kasu honetan guztiz desegokia dala // nik kale borroka / aurreko batean ere esan nun / benetan txartzat jotzen dut / bake prozesuari izugarrizko kaltea egiten dio / e / posizio politiko batzuek indartzen ditu / eta beste batzuek ahultzen ditu / e / nik uste dut norbaitek euskal herrita

[ZINTA BUKATU DA)

AO buo / nik uste dut // bakeari buruz hitz egiten denean / egia da ongi zentratuta dagoela lehenengo reflexioa ez // bake aseptikorik gure ustez / ez dagoelako eta / gure ustez / bakea eta gizarte baketsu bat beti ere justizian oinarritu behar den gizarte bat da // zentzu horretan / gu betidanik egin dugu erreflexio hau eta / gizarteari / euskal gizarteari / zuzendu diogun erreflexioa **hori** da // etaren su etenak / aukera bat irekitzen dio / herri honi // eta aukera hori aprobetxatu beharrean gaude] // [baina etaren su etenak ez du bakea egiten / herri honetan benetako bakea egoteko / ez bakarrik euskal herrian / munduko edozein herrietan bezela / justizian oinarritutako bakea izan behar da]// [eta gure ustez / hemen aprobetxatzen / sarreran esan dugun bezala / aturritik ebroraino euskaldunok gaudela // ba gure ustez oso garbi dago bakea euskal herrian / bi zutabe nagusi dituela ba ez // bata da lurraldetasunaren ezagutza / eta bigarrenik / euskaldunok erabakitzen duguna / errespetatua izan behar dela (EJB, 1999.01.18)